

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak Altsasun izandako azken bilkuran Butroe ibaia-
ren bokale edo ibai ahoan dagoen badiaren izena aztertu zuela eta izena
Plentziako Badia / Bahía de Plentzia dela ebatzi duela.

Bi izan dira izen hau hobesteko arrazoiak, geografikoak eta historikoak.

Historian zehar, aipatutako eremua izendatzeko portua zeukan Plentzia hiria hartu izan da erreferentziatzat eta Gorliz zein Barrika izenak ez ziren XX. mendearen amaiera arte erabiltzen hasi. Itsasoko geografia izenak nabegaziorako liburu eta kartetan ageri dira eta, esaterako, Battista Agnesek 1544an argitara emandako atlasean Plentzia dago, *Plazencia* idatzita, garai hartako mapetan jomuga ziren portu izenak ageri baitira. Beste horrenbeste esan daiteke 1578an Joan Martinesek argitara emandako atlas ezagunaz. Bertan ere *Plentzia* dugu, *Platentia* moduan emana. Euskaraz inguru honetaz ezagutzen dugun aipurik zaharrena Piarres Etxeberri «Dorre» jaunak 1677an argitara emandako lan honetan ageri da: *Liburu Hau da Itsasoko Nabigazionekoa*. Honako hau dio:

*Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Plaxenzian ioanen zare ahalik eta
istriborrenerat santua deskubritu artean eta etxatuko zaitu northerat eta
muillazazu uest noroesta puntaren gaiñetik duzunean.*

Liburu hau, euskaraz itsasgintzaz idatzitako lehenengoa da, alegia, Ziburuko Martin Hoyartzabalek 1633an argitaratutako *Les voyages aventureux du capitaine Martin de Hoyarzabal* liburuaren itzulpena. Jatorrizko liburuan ondokoa ageri da:

*Sçaches que situ veux poser au Mailhar de plaisance iras par le plus sur
deuers Stibon....*

XIX. eta XX. mendeetan argitaratutako *derrotero* izeneko lanetan eta kartetan generiko desberdinak ageri badira ere (*ensenada, concha, bahía*) aipatzen den izen bakarra Plentzia da ez ordea Gorniz edo Barrika.

Arrazoi geografikoei dagokienez esan behar da *badia, bokale* eta abarrek inguruko portu nagusiaren izena hartzen dutela eta horren adibiderik gardenena Bizkaian bertan dago. Izan ere, Ibaizabal ibaiak sortzen duen bokalari *Bilboko abra* edo *Abra de Bilbao* esan ohi zaio mundu zabalean, nahiz eta Bilbo 15 kilometro barrurago dagoen. Baina, inoiz ez da erabili, ezta proposatu ere, *Getxoko abra* deitzea, kilometrorik gehienak azken udalerrri honetakoak baldin badira ere. Kostaldetik segituz ikusten da hori dela jokabide arrunta, eta adibiderik argienak Galiziako itsasadarrak dira. Hauek izendatzeko portu-hirien izenak erabiltzen dira.

Eta eskatzaileari igortzeko, izenpetzen du Bilbon, bi mila eta hamarreko azaroaren hamalauan.



Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzorde-idazkaria

O.I.



Andres Iñigo,
Onomastika batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que tal como se recogía en el certificado emitido en euskera el 14 de noviembre del pasado año, la Comisión de Onomástica en la reunión celebrada en Alsasua el veintiuno de octubre de dos mil diez estudió la denominación de la bahía o abra que forma el río Butrón / Butroe y acordó que su denominación correcta es **Plentziako Badia / Bahía de Plentzia**.

Dos son las razones para validar este nombre, unas de tipo histórico y otras de tipo geográfico.

A lo largo de la historia para designar esta zona se ha usado el nombre de Plentzia por ser la villa con puerto situada en ella y tanto los nombre de Gorliz como de Barrika no comenzaron a utilizarse hasta el siglo XX. Los testimonios están recogidos en los libros y cartas de navegación y, así, en el atlas publicado en 1544 por Battista Agnes podemos leer *Plentzia*, escrito como *Placenzia*, puesto que en los mapas de aquella época se reflejaban los puertos de destino. Se puede decir lo mismo del conocido mapa publicado en 1578 por Joan Martínez. En el también consta *Plentzia*, en este caso escrito como *Platentia*. El testimonio eusquérico más antiguo sobre esta zona se lo debemos a Piarres Etxeberri «Dorre», que en 1677 publicó el libro *Liburu Hau da Itsasoko Nabigazionekoa*, donde aparece lo siguiente:

*Iakiteko duzu nahi baduzu muillatu Plazenzian ioanen zare ahalik eta istribo-
rrenerat santua deskubritu artean eta etxatuko zaitu northerat eta muillazazu
uest noroesta puntaren gainetik duzunean.*

Este libro, primera obra de tema naval en euskera, es la traducción del libro *Les voyages aventureux du capitaine Martin de Hoyarzal*, publicado por Martin Hoyarzal de Ziburu en 1633.

Sçaches que situ veux poser au Mailhar de plaisance iras par le plus sur deuers Stibon....

En los derroteros y cartas publicadas en los siglos XIX y XX, aunque aparecen distintos genéricos (*ensenada, concha, bahía*), el único nombre que aparece es Plentzia. No se mencionan ni Gorliz ni Barrika.

En lo que respecta a las razones de tipo geográfico, hay que recordar que las *bahías, abras* y *desembocaduras* toman el nombre del puerto más importante. El ejemplo más claro está en la propia Bizkaia, donde a la desembocadura del Ibaizabal se denomina *Abra de Bilbao / Bilboko Abra*, aunque dicha villa se ubica a unos 15 kilómetros aguas arriba. Nunca se ha usado, ni propuesto siquiera denominarle *Abra de Getxo* a pesar de que es este municipio el que más metros de costa tiene en dicho lugar. Siguiendo la costa, se puede ver que ese el procedimiento usual. El ejemplo más claro lo ofrecen las rías de Galicia las cuales toman el nombre de las villas portuarias.

Para su envío al peticionario firmado en Bilbao el catorce de noviembre de dos mil diez.



Mikel Gorrotxategi,
Secretario de la Comisión de Onomástica

Vº Bº



Andres Iñigo,
Presidente de la Comisión de Onomástica